



DONOSTIAKO XXXV. UDA IKASTAROAK XXVIII. EUROPAR IKASTAROAK

IKASTAROAREN AURKEZPENA: EUROPA, ASILO LURRALDEA? ERRONKAK ETA ERANTZUNAK

Lehendabizi, agur esan nahi diet hizlariari eta Ararteko erakundeak eta EHUK elkarrekin antolatu dugun jardunaldi honetan gurekin zaudeten guztioi. Era berean, eskerrak eman nahi dizkiot ikastaroen zuzendari Carmen Agouési eta bere lantaldeari, ikastaro hau egin ahal izateko eman diguten laguntzagatik.

Zergatik erabaki du Arartekoak urteko uda ikastaro honetan errefuxiatuen egungo krisia jorratzea? Arartekoa, giza eskubideen defendatzailea denez, ezin zen ezer egin gabe geratu eskubide-urratze larri horren aurrean, eta, babesari eta asiloari aurten eskainitako zikloaren barruan zenbait jarduera programatu dituzten erakunde guztiek bezalaxe, helburu hau lortu nahi du: arretaz aztertu eta eztabaidatzea sortzen ari diren arazoek norainokoa, baita ere Europako, Espainiako edo Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat erakunderen erantzuna (edo erantzunik eza) egoera horren aurrean, izan ere, bigarren mundu gerraz geroztik izan den asilo-eskaerarik handiena egiten ari da orain. Hori inoiz ez bezalako erronkak sortzen ari da hain egoera berezian asilo-eskubidea errespetatzea eraginkortasunez berma dadin.

Kanpoko mugetan barrena jende samalda mugitzea kolokan jartzen ari da Europar Batasuna, ez bakarrik ohiko asilo-sistemaren funtzionamenduari dagokionez, baizik eta baita ere Europar Batasuna sortzeko printzipioak indarrean egoteari dagokionez. "Errefuxiatuen krisia" deritzana irakinaldi biziari dago eta agerian jarri du, bortizki, Europaren integrazio-proiektuari eusten dioten zutabeekiko atxikimendurik eza, ustekabekoa eta etsigarria.

Orain ispiluan bere buruari begiratzen dionean, Europak ez du islatuta ikusten bake, justizia eta elkartasunaren utopia hura, elkarren segidako zenbait gatazka belikoren ondoren, herriak eta nazioak batzeko prozesua hasi zuten buruzagi ameslari haiek abiarazi zutena. Ez ditu islatuta ikusten Argien Mendeko printzipio eta balioak, De Gasperi, Schumann, Monnet, Adenauer bezalako gizon ospetsuek funtsezkotzat jo zituztenak integrazio-proiektuak errail partekatu eta seguruetatik aurrera egin ahal izateko. Aldiz, ikusten du estatu-berekoikeria onartezinak agertu direla berrito, ideal haiek abandonatu direla, lorpen handiak arbuia direla, adibidez, Oinarrizko Eskubideen Gutuna edo segurtasun eta askatasuneko eremu komuna. Ikusten du elkartasuna ahaztu egin dela, edo, bestela, mespretxatu, nahiz eta balio hori Europako proiektu komunak berezko izan eta gizakiaren duintasuna defendatzearekin estu lotuta egon (duintasun hori aldarrikatzen da Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 1. artikuluan).

Krisi humanitarioari erantzun egokirik ez ematea arras etsigarria da Europa batuaren aldeko guztientzat, eta zalantza sortzen du nazioz gaindiko gure erakundeek gaitasunik ba ote duten erronka izugarri horri aurre egiteko Europaren eraikuntza-proiektua sostengatzen duten printzipio eta balioei uko egin gabe. Izan ere, proiektu horrek elikatzen du geroko belaunaldientzako itxaropena.

Horregatik, gaur, zuen aurrean, asilo-eskubidea aztertu ahal izango dugu ikastaro honetan, bai ikuspegi teorikotik, bai eskubide hori arautu eta errealitatean ezartzearen ikuspegitik. Horretarako baliagarriak izango ditugu jurista adituen, gobernuz kanpoko erakundeetako ekintzaile arduradunen, Euskal Herriak Europako Parlamentuan dituen ordezkarien eta Euskadiko hiru erakunde-mailetan erantzukizunak dituzten administrazioetako ordezkarien mintzaldiak.

Gure hizlari ospetsuetako batzuek ondo baino hobeto ezagutzen dute jazarpenaren kontra babestearen arloko nazioarteko araudia (Genevako Hitzarmena edo New Yorkeko Protokoloa); horregatik, ez daukat gai horretan sakondu beharrik.

Zuen baimenarekin, gogoeta bakar bat egin nahi dut: EB sortzeko hitzarmenetan berariaz aitortzen da asilo-eskubidea Genevako 1951ko Hitzarmenean eta New Yorkeko 1967ko Protokoloan adierazitako moduan. Hala ere, eskubide aitorten horri murrizketa handiak egiten ari zaizkio Espainian nahiz Europako beste herrialde askotan, eta badirudi hori kontrajarri egiten zaiola oinarrizko eskubide horren nazioarteko aitortpenari eta eskubide horri babes osoa emateak berekin dakarren betebeharrari.

Horrela, Europako Batzordeak joan den apirilaren 11n birkokatzeaz egindako bigarren txostenean adierazi duenez, aurrerapenak ez dira gogobetetzeko modukoak, eta estatu kide gehienei aurpegiatzen die, batik bat Espainiari, errefuxiatuak hartzeko lanean hain konpromiso kaskarra izatea. Europar Batasun osoaren emaitza lazgarria da: 1.145 pertsona 2016ko apirilean, hasieran hartzekoak ziren 160.000 pertsonaren aldean, hau da, %0,7%, edo, bestela esanda, pasadizozko gertaera baino ez.

Bestalde, ACNURrek 2015eko joera orokorrez prestatuturiko txostenaren arabera, munduan 65 milioi pertsonatik gora aldatu dira lekuz behartuta. Orobat, CEARren esanean, ia 15.000 pertsonak eskatu dute nazioarteko babesa.

Haurrei begiratzen diegunean, horiek baitira exodo jendetsu horien biktimarik ahulenak, UNICEFek ohartarazten gaitu bakarrik zeuden 10.000 ume errefuxiatu eta migratzaile desagertu direla gure mugen barruan, arrastorik utzi gabe, eta kopuru horrek gora egin lezakeela.

Egoera hori ikusita, pertsonen defendatzaile naizenez, gaia zehaztu eta hausnarketa batzuk egin nahi ditut, eta zenbait iritzi eman, hemen bildu gaituen gaiaren gainean:

Lehen adierazi dugunez, errefuxiatuen krisia ez da krisi humanitarioa bakarrik. Gogoan izan behar da nazioarteko hitzarmenak eta gainontzeko tresna juridikoak nahitaez bete behar direla, guztiz indarrean dirautela pertsona guztien bizitzarako, osotasunerako eta duintasunerako oinarritzko eskubideek, eta estatu kideek eta Europako erakundek ezinbestean bete behar dituztela.

Mediterraneo itsasoa heriotzaren eta etsi gaiztoaren ikuskizun makabroa bihurtu da. Hori ikusita, Europa ezin da ezer egin gabe geratu, pertsona horiei laguntzeko eta harrera egiteko ekintza solidarioa burutu behar du. Nabarmendu beharra dago, bidezkoa baita, Grezia eta Italia herrien eta Europa osoko boluntarioen erantzun goresgarria, gure kontinentera heltzen diren errefuxiatu saldoen aurrean.

Asilo arloan dagoeneko baditugu gutxienezko estandar batzuk. Horiek era koordinatuan ezarri behar dira Europar Batasuneko estatu kideetan, eta ahaleginak egin behar dira EBrekin mugan dauden estatuetan ere ezar daitezen.

Uste osoa izan behar dugu errefuxiatuak onartzea EB osoaren ardura dela, EBk bakarrik duen eskumen bat, aduana-batasuna den bezalaxe. Estatu kide batzuek nekez onartuko dute hori, subiranotasuna zertxobait lagatzea dakarrelako berekin; edonola ere, gaur egun presio handia dago bide horretan aurrera egiteko. Horrela, oraingo krisia europar integrazioa hobetzeko aukera bat bihur daiteke, asiloa bezalako kontuzko arlo batean.

Bien bitartean, gizatasunez jokatu behar da, ahal den guztia egin behar da Europako asilo-sistema, akatsak baditu ere, benetan ezar dadin. Horretarako, Estatu kideek zintzo bereganatu behar dituzte beren konpromisoak, eta horietako askok beren elkartasunezko betebeharrak saihesteko egiten dituzten ahaleginei utzi behar diete. Eragindako estatuek, Greziak batez ere, ezin diete egiaz erantzun egokirik eman asilo-eskatzailen behar guztiei. Horregatik, aparteko kasuetan, EBk elkartasuna agertuz lagundu beharko lieke egoerak gainez eginda dauden estatu kideei, krisia modu eragingarriago eta arduratsuagoan kudeatzea erraztuz eta lege mailako eta laguntzeko berme guztiekin.

Ez da onargarria Schengeneko akordioak aldi baterako etetea, ezta ere harresiak eta hesiak jasotzea, kolokan jartzen baitute "Europa" ideia bera. Ezinbestekoa da estatu kide guztiek birkokatze-akordioetan dagozkien betebeharrak betetzea, begi-bistakoa baita beren gain har ditzaketela.

Estatu batzuek argiro erakusten duten elkartasunik gabeko jarrera onartezina da, bada Europako proiektuari ezingo zaio eutsi krisiaren ondorio guztiak estatu batzuek bakarrik jasaten badituzte eta beste batzuei beren betebeharrak ez betetzen uzten bazaie.

Berehala erabakitasunez abiarazi behar dira hartutako pertsonak gizarteratzeko politika publikoak, izan ere, pertsona anitzaldi berean hartu ahal izateko, sortu den erronka ikaragarriari oso-osorik helduko dioten neurriak beharko dira.

Gizarte-pedagogia apur bat ere beharko da hartutako pertsonen jatorriaz dauden aurreiritziak eta estereotipoak desagerrarazteko, islamofobia adierazpenak saihestuz, errefuxiatuak baitira, hain zuzen, fanatismoaren eta intolerantzia yihadistaren lehen biktimak.

Azkenik, nabarmendu nahiko nuke errefuxiatuen egoerari epe ertainean arrazoizko erantzuna emateko modurik onena nazioarteko ordena bidezkoagoaren alde lan egitea izango dela. Horretarako, bakearen eta giza eskubideak errespetatzearen aldeko politikak landu beharko dira, pertsonen lekualdatze jendetsuek azkenean sortzen dituzten gatazkak prebenitzeko edo desagerrarazteko.

Nire kritika alarma-oihu gisa entzun dadin nahiko nuke, Europak eman dezakeen onena eskatzeko deia. Europar integrazioaren zutabeak astintzen ari den krisi hau aprobetxa dadin eskatzeko deia, gorantz ateratzeko aukera bat balitz bezala: Europa zabalagorantz, ez Europa estuagorantz. Agerikoa da estatuek, bakoitzak bere aldetik, ezin dituztela konpondu horrelako fenomeno orokorrak: alegia, mugetan barrena datozen pertsonen mugimendu jendetsuak. Europan elkartasuna indartuz soilik erantzun ahal izango zaio krisi honi edonor konbentzitzeko moduan.

Izan ere, hori guztia gorabehera, badira itxaropentsu egoteko arrazoiak.

Suspergarria eta itxaropentsua da, esate baterako, Europako, Espainiako eta Euskadiko gizarte zibilak erakutsi duen kemen demokratikoa. Gobernu kanpoko erakundeek (horietako batzuk gurekin dauden gaur, ikastaro honetan ekarpenak egiten) irmo defendatu dituzte harreraren eta elkartasunaren balioak, eta, orobat, askotan eman dute sorosteko eta laguntzeko erantzun eredugarria iriste-guneetan beretan eta errefuxiatuen eremuetan, erakundeen eta gobernuen erantzunetan izandako disfuntzioak eta atzerapenak osatuz sarritan.

Sindikatuaren, elkartearen eta alderdi politiko batzuen lana ere azpimarratu nahi dut, sendo eskatu baitute aldaketa bat EBren politikan, lekuz aldatutako ehunka mila pertsona bizitzen ari diren egoeraren aurrean.

Era berean, pizgarria da hiri eta autonomia erkidego batzuen konpromisoa. Eusko Jaurlaritzak, gainontzeko euskal herri administrazioekin koordinatuta, euskal lurraldean hartutako errefuxiatuei babesa eta laguntza emateko plan bat ezartzeko asmoa dauka dagoeneko. Plan horretan aintzat hartu dira etxebizitza, enplegu, gizarte-politika, osasun edo hezkuntza arloetako neurriak, bihar jakingo dugunez.



Nabarmendu beharrekoa da, halaber, Eusko Legebiltzarraren Osoko Bilkurak 2015eko urriaren 1ean onartutako Akordioa, 86/2015 legez besteko proposamena onartzen duena. Proposamen horrek babes-lurraldetzat jotzen du EAE, babes eta laguntza bila datozen jazarpenaren biktimetzat.

Ez dut autoatseginkerian jauzi nahi, eta Euskadira lehenbiziko errefuxiatuak heltzen ari diren aste hauetan, nire konpromisoa berretsi nahi dut, Ararteko gisa: hain egoera txarrean datozen pertsona horien eskubideak bete daitezen arduratuko naiz.

Ziur nago bi egun hauetan sakon aztertuko ditugula Zuzenbide Estatuak erakunde, herritar eta gizarte osoaren eskuetan jartzen dituen tresnak, bizirik irauteko asmoz beren herrialdeetatik ihesi datozen pertsonarik ahulenen eskubideak defendatzeko.

Horrexegatik dira hain garrantzitsuak zuen presentzia eta ekarpenak. Adituenak, administrazioarenak, erakundeen eta gizartearen ordezkariak. Baina, batez ere, zuen guztion bitartez, aintzat hartu nahi dugu justiziarik eza eta eskubide-urratzea indartsu bizi duten pertsonen begiratua.

Pertsona batzuei ardura zaie egunotan jorratzen ari garen gaia, baina ez dute etortzerik izan. Horiek gurekin elkarri eraginez jardun ahal izan dezaten, bi bide erabiltzen ari gara materialak eta elkarrekintzak eskuratzeko:

- Gure web orrian ageri dira jaso ditugun ponentzia guztiak, banatu dizkizueten laburpenen osagarri. Horiekin denekin argitalpen bat prestatuko dugu, eta hura ere eskuragarri egongo da Arartekoaren web orrian.
- Gizarte-sareetan elkarriketa errazteko asmoz, hashtag bat sortu dugu (**#UEasilo**) eta hainbat argazki eta iruzkin jartzen ari gara Arartekoak gizarte-sareetan dituen profiletan.

Parte hartzera animatzen zaituztegu. Eskerrik asko.

Manuel Lezertua Rodríguez
Arartekoa